

Hotzak

Konforme. Egin egin du. Luzaroan gainera. Hotza. Baina hedabideen eraginez seguraski -minutuak eta minutuak eskaintzen baitzizkiete eguraldiari, eginari eta datorrenari -gure bizitzaren gune bihurtzen da askotan hotz-beroa eta euri-ateria. Badakigu zehatz-mehatz non zenbateko hotza egin duen, noiz datorren elurra, noiz euritea... Eta partekatu eginen dugu informazioa ingurukoekin. Igo-gailuan zeresanik ezean aterako izkin-hizpidea baino askoz kontu serioagoa bilakatu da eguraldia. Naturarengandik urrunen bizirik garen dugu mintzagaien naturaren alderdi hori.

Garai batean, ama batek baino gehiagok egingo zuten errieta -gureak eginen zigan- ume barrabasok etxean argi gehiegi uzten genuelako itzaltzeko alferrez: «Zer uste duzue zuek, Iberdueroako akzionistak garela?», zen haserreari atxikitzen zion



PLAZATIK
Andoni Egaña

esamoldea, eta nago, gurean bezala beste etxe askotan entzuten zirela hitz horiek duela berrogei urte. Urteak etorri ziren gero, IBERrek DUERO ibaia galdu eta beste atziki bat hartzeko baliatu zituenak, non gure gurasoen kezka hark gailendua zizudien. Azken urteotan, ordea, krisiari krisi deitzen hasi ginetik, kale-etxean bizi denak ere hotzaren iritsierari izua dio. Badaki ilun-orduak asko direla eta argia beharko duela; badaki zenbat eta etxe kaxkarragoa izan orduan eta berogailu ordu gehia-

go beharko dituela gelak goxatze aldera; eta badaki argindarra asko garestitu dela azken hamar urtean eta batik batik azken hila-beteotan.

Ostiraleko BERRIAKO Xabier Martinen erreportajea gai honi buruz irakurri izan dudana oso onetarikoa da. Aipatzen zuen Murphyren legea bete dela beste behin ere: asterik hotzenezan egokitu dela argindarraren preziorik garestiena. «Energia konpainiekin lotutako kontuetan, ordea, zortea hutsaren hurrengo ohi da». ematen zuen epaia. Xehetasunak xehetasun eta datuak datu, borobil esanda, Iberdrolak, Endesak eta Gas Naturalek sekulako diru-sarreak izango dituzte eta kontsumitzaileak kopetilu gauda. Espainian bezero bakoitzak urtean ehun euro gehiago ordainduko dugu. Politikariak erabakiak hartu ezinik eta hartu nahi-ezta ren muga horretan, -ate birakariak hor daudenik ezin ahaztuko

dute badaezpada - handizkako merkatuek eta konpainia handiek nahi dutena eginen dute. Prezioak manipulatzeari Iberdrola eta Endesa behin baino gehiagotan zigortu dituztela aipatzen zen Xabier Martinen erreportajea, baina milioi euro askotako isunak apaldu egin dituztela gero epaitegiek. Gutxi behar dutenei gehien lagundu! Laguntzaz ari garenez, bonu sozial bat ere onartu duen dekretua abian jarri du Espainiako Gobernuak. Onuradunak izan daitezke kide guztiak langabezian dituzten familiak, familia ugariak, gutxieneko pensioa jasotzen duten 60 urtetik gorakoak... Ongi. Baina jakin dezatela pobrezia mugatik oso hurbil dabilen gero eta herritar gehiago direla argindarretan aurreztearren sekulakoak eta bi eginen dituztenak. Gaztekeraz, casa-k ez duen esanahia du *hogar* hitzak. Itzulpen bat zela eta *hogar*-i parekoa aurkitzen

hasi nintzelarik ez nuen *subzter* baino egokiagorik aurkitu. Egungo ongizatearen gizarte honek ez du halako izenik merezi etxe guztiek subzter izateko aukerarik ez badute.

Bada ordea euskarazko beste hitz bat, hotzarekin zerikusi zuzen-zuzena duena, beti iruditu izan zaidana xarmanta: *sumina*. Inguruko hizkuntzetan nola adierazten den ere ez dakit, baina guretat da hatz, behatz, sudur-puntita edo belarrietako hotz jasangatik hori. Luzaroan bazabiltza eguraldi txarren menpe gorputz-atal batzuetan sentitzen duzuna hotzaz gaitziko mina da. Badu *sumina*-k, ordea, alderdi bat ona. Izaten da une bat, minari sua gailentzen zaiona edo, berotzen hastean, sekulako plazera sentitzen duzuna. Ez nuke jakingo ze plazer mota den definitzen. Litekeena da mina ezagutu eta ondorengo ezaren plazera soilik izatea. Ez da gutxi. Hobe luke gure gizarteak ere, jasaten ari den hotza jasan eta gero, horrelako unerik ezagutzeko aukerarik balu.

Txillardegirekin zorretan

Zuk, Vicent, bazenuen haren berri, eta *Vilaweb*-eko adin batetik gorako irakurle dextentek ere bai. Jose Luis Alvarez Emparantza *Txillardegi*-z ari naiz, azken mende erdian gure herriak eman duen pertsonarik emankorrenetako bat. Duela bost urte hil zen.

Arlo askotan aitzindari izan zen, hala nola politikan, literaturan, filologian... Politikan sortzaile jokabidea hartu zuen, ETArek, Herri Batasunaren eta Aralarren sorreran parte hartu baitzuen. Literaturan, gerra ondoko euskal literaturari nazioarteko korronte modernoak txertatu zizkion, gaietan eta formetan. Eta filologian, garbitzaile aldea batera utzita, euskara batua-ren eta modernoaren ingeniari eta garatzaileetako bat izan zen.

Eraikuntza publikoeri erreferentziako pertsona hildakoen izena jartzeko ohitura handia dago: Pompidou Gunea Parisen, Ernest Lluch Kultur Etxea Donostian, Azkuna Zentroa Bilbon...

Koldo Mitxelena da beste adibi-

de bat. Txillardegirekin batera erreferentziako beste pertsona bat gure herriaren historia modernoan. Donostian bertan, kultur gune garrantzitsu bat eta eskola bat dauzka bere izenean.

Txillardegi hil eta gutxira herritar talde batek eskatu zuen Txillardegiren izena jartzeko udalbatzaren azpian dagoen Udal Liburutegiari, ederki merezita zeukalakoan. PSE-EEk eta PPK Txillardegik «ETA erakunde terroristak» sortu zuela argudiatu zuten aurka egiteko, oharatu nahi izan gabe 1959an beste gazte batzuekin batera sortu zuena ez zela ez talde «armatua» ezta «terrorista» ere; ez behintzat Txillardegik bertan egon zen bitartean. EAJK ere -ez du sekula Txillardegiren izena jartzeko aukera bozkatu zuen, «nahikoa kontsentitu» ez zegoen aitzakia argudiatuta. Bilduk aldeko boto eman zuen. Bosgarren urteurrenean, berriro eskatu dute udal liburutegi horri gizon handi horren izena jartzeko. Ea oraingoan batzuek erredikuluak egiteari uzten dioten.

ENBAXADA BILA

Vicent Partal
ViaWebeko zuzendaria

Urteak dira **Katalunia Europako agendan dagoela, eta inor gutxi jartzen du zalantzan 2017an zerbait oso garrantzitsu gertatuko dela**

Martxelo Otamendi
BERRIAko zuzendaria

Txillardegiren heriotzaren bosgarren urteurrenean udal liburutegi horri gizon handi horren izena jartzeko eskatu dute. Ea oraingoan batzuek erredikuluak egiteari uzten dioten

Asteartea Bruselan

Astearte honetan, Puigdemont presidentek, Junqueras presidenteordeak eta Romeva Atzerri Gaietarako kontseilariak hitza hartuko dute Europako Parlamentuko ekitaldi batean, Kataluniaren independentziaranzko bidea azaltzeko. Ekitaldi pribatua izango da, harrerara ofizialik gabea, baina parlamentuak areto handienean izan dadila agindu du, diputatu asko joatea espero dutelako.

Espainiako Gobernu urduri dago ekitaldi hori dela eta, eta Espainian ziurtatu du ez duela onartuko azaltzekoak direna azaltzea. Bruselan, ordea, bere bertsioko azaltzeko beste ekitaldi bat presatuko duela besterik ez du esan. Alde handia dago ez onartzearen eta beste ekitaldi bat antolatzearen artean; hain justu. Espainian eta Europan demokraziari zaion errespetuaren artean dagoen alde berbera. Ekitaldi horren inguruan, Kataluniako diplomaziazki ez du aparteko ezer espero.

Puigdemontek Madrilan eman zuen azken hitzaldira zortzi enbaxadore joan ziren, eta Espainiako Gobernuo kiderik ez -oso adierazgarria da hori; ikusiko dugu astearteko ekitaldiak zer argazki uzten dituen-.

Urteak dira Katalunia Europako agendan dagoela, eta inor gutxi jartzen du zalantzan 2017 onartean zerbait oso garrantzitsu gertatuko dela. Azaldua dute, esate baterako, Deutsche Bankek eta *The Economist*-ek. Azken urte hauetako lana gogorra izan da, eta fruituak eman ditu. Gaur, zerrrenda bat egin daitezke Kataluniaren independentziaren alde egin duten Europako estatuekin, eta ez da hutsaren hurrena: Danimarka, Suitza, Belgika, Irlanda, Eslovenia, Finlandia eta Baltiko-ko herrialdeak, garbi. Ondorioz, azken erabakia Europaren esku badago, garbi dago partida bat jokatuko dela, eta Espainiak ez du erraz irabaziko. Horregatik, baita ere, gobernuo goi kargudunak Bruselara doaz aste honetan.